

**LUIS MARTIN ETA ZELIA GERIN DOHATSUAK**

Luis Martin eta Zelia Gerin Santa Teresa Lisieuxkoaren gurasoak ditugu. Aurtengo uztailaren 13an euron ezkontzako 150. urteurrena bete da eta aurtengo urriaren 19an, Lisieuxko Basílica ederrean, Elizaren doatsu ofizialki izendatuak izan dira.

Baditugu motiboak euron aipamena Karmel aldizkarian egiteko. Orain 12 urte be eurotzaz (ikus. Karmel, 1996, 2/3, 48 – 55 orr.) zerbait idatzi neban. Baina egoki deritxat orduan esandakoa osotzeari...

Badira hor eta hemen, makina bat liburu eta artikulua Tere-satxoren gurasoei buruz idatziak. Niretzat hiru dira oinarrizko-enak: Zeliaren eskutitzak ( Correspondance familiale, Lisieux, 1958), gero Teresa Lisieuxkoaren lan guztien edizio kritikoa zortzi liburukitan (Édition critique des oeuvres complètes de Sainte Thérèse de l'Enfant-Jésus, Cerf-Brouwer, 1972) eta hirugarrena normalki "Positio" deritxona, bi liburuki marduletan (Congregationis Servorum Dei, Ludovico Martin et Mariae Aze-liae Guérin, positio super virtutibus, Roma, 1991).

Nik neuk lau zatitan banatu dot artikulua hau. Lehenengoan, ezkondu aurreko bion bizitza. Bigarrean, bikote honen ezkontzako urteak. Gero, Zelia hil ondoren, Luisen alarguntza eta heriotza. Eta azkenik, Elizak emon dituan pausoak bikote hau aldaretara jasoteko.

### 1.1. Luis Martin ezkondu aurretik (1823 – 1858)

Luis Bordelen jaio zan 1823ko abuztuaren 23an. Bost nebarreben artean, bigarrena dogu. Honen gurasoen izen-abizenak Pedro Martin eta Fanie Boureau. Aita militarra danez, hara eta hona ibili beharrez izango da bere familiagaz. Batean Avignonen, bestean Estrasburgon eta abar... Militarren seme-alaben eskoletan egingo ditu Luisek bere umetako ikasketak. Militar bizitzatik jubilatatu ondoren, aita eta familia osoa Alençonera doaz bizitzera. Anaia Lasalletarren ikastetxean egingo ditu Luisek bere ikasketak.

Ez dau Luisek inondik inora sentitzen militar izateko gogorik. Bitxigile-erlojugile izatea dau gogoko eta Rennesera doa ikasketa bereziak egiteko asmotan. Baina bere barneko deia Alpeetako San Bernardo monasterio ospetsuan lekaide sartzea izango da. Latin ez dakianez, ez dabe onartzen. Etxera itzuliz,



gogor ekingo deutso latin eta greko ikasteari. Hilabete batzuk igaro ondoren, konturatzen da zail egiten jakola hizkuntza klasiko honeek menperatzea. Eta bitxigintza-erlojugintzako ikasketak jarraitzea erabagiko dau; Estrasburgon eta Parisen amaituko ditu ikasketok.

Estrasburgon egoala, umetan ikasitako aleman hizkuntza be hobetzen ahaleginduko da. Uri honetan gertakizun batek garbi erakusten dau Luis gaztearen ausardia, bertako ibai handian ito beharrean egoan gaztetxo bat salbatuz. Hazurretaraino sartuta dauko Luisek preminan dagoanari laguntzea.

27 urte dituala, Alençonera itzuliz, bere gurasoen etxean, Pont Neuf kale ederrean, zabalduko dau bere bitxitegi-erlojutegi barria. Ez bakarrik esku oneko artisaua, barne-bizitza sakona eta aberatsa dituan gaztea be bada. Lan orduetatik kanpo, gogoko ditu liburuak irakurtzea, meditazioa, arrantza... Horretarako herritik kanpo, "Pavillon" deritxon etxetxo bat bere baratze eta guzti erosten dau.

Luisen koadernoetan ikusten danez, gogoko ditu bestek beste autore honeek: Chateaubriand, Lamartine, Victor Hugo, Joseph Maistre, Boileau, La Fontaine, Racine, Bossuet, Fenelon, Augusto Nicolas, Elizaren historia, Charles Arminjon eta abar. Santuen artean, Juan Ebanjelaria, Agustin, Juana Arkekoa, Fratzisko Xabierkoa, Frantzisko Asiskoa ditu maiteenak. Honen "Eguzkiaren eresia" oso-osorik kopiatuko dau bere koaderno baten. Baditu Tomas Akinotarraren eta Elizaren Guraso santuen pentsamenduak be.

## **1.2. Zelia Guérin ezkondu aurretik (1831 – 1858)**

Zelia, Alençon ondoan dagoan Gandelain herritxoan jaio zan 1831ko Gabon bezperan. Hiru neba-arreben artean bigarrena dogu berau. Gurasoen izenak Isidoro Guérin eta Luisa Macé. Zeliaren aita be militarra dogu. Seme-alabak hobeto hezteko, familia osoa Alençonera aldatzen da bizitzera. San



Blas kalean erosiko dabe etxea. Lekaikeen ikastetxe baten jarraituko ditu Zeliak bere ikasketak. Honetaz oroipen ona izango dau beti.

Gaixoei eta pobreei laguntzeko gogo bizia daukanez, Karidadeko Alaben lekaike izatea erabagitzen dau. Hemeretzi urte besterik ez ditu. Ez dakigu garbi zergaitik baina, Karidadeko Alaben arduradunak ez dau onartzen. Aita Piat frantziskotarren esanetan, osasun ezagaitik izan zala dirudi.

Porrot honen ondoren, Alençongo entzute handiko puntua egiteko ikasketak hasiko ditu. Puntuzko ehunen sekretuak menperatu ondoren, bere etxean zabalduko dau ehundegi bat. Hasieran bere ahizta Maria Luisak lagunduko deutso. Gero 22 emakume langile izateraino helduko da. Oso preziatuak dira Zeliaren ehundegiko lanak. Nazioarteko erakustaldi baten, bigarren saria jasoko dau Zeliaren puntuzko ehundegiak. Paris-

ko Pigache Etxearen bidez komertzializatuko ditu bere lanak eta ezkondu ondoren bere senarrak eroango dau salerosketen ardura.

## 2.1 Maitasunezko ezkontza (1858 – 1877)

1858. urtean, bai Zeliak eta bai bere ahizta nagusiak, aspaldian barnean eroien asmoa egia bihurtzen dabe. Maria Luisa lekaime doa Le Mansera eta Zelia ezkondu egingo da Luis Martinekin. Hiru hilabete ezkongai izan ondoren, Alençongo Notre Dame parrokian, 1858ko uztailearen 13an, ezkonduko dira elizaz. Zarata handi barik eta Frantziako Errepublikaren Elizaren aurkako legeagaitik, gauerdian, Hurel abadeak bedein-katuko dau ezkontza. Bezperan, Frantziako legeen arabera, Udaletxean zibilez ezkondu beharra izan eben. Luisek 34 urte ditu eta Zeliak 26.

Euron asmoa, hasieran, ezkondata birjintasun osoan bizitzea izango da. Luisen koadernoetan, historian zehar izandako kasu batzuk agertzen dira. Batez be, San Joseren eta Andra Mariaren ezkontza. Baita santa Zezilia eta Valerianorena be edo Alemaniako Enrike enperadorea ta Gunegunda edo Elzear Sabran eta Delfina Glandere santuen bideari jarraituz. Luis eta Zelia guztiz maiteminduta biziko dira. “Nire senarra guztiz xarmangarria jat. Honelako senarrak munduko emazte guztiak izatea nahiko neuke nik” idazten deutso bere nebari.

Hamar hilabete inguru ezkondu ondoren, abade baten aholkuei esker, seme-alabak izatea erabakitzen dabe. Horixe bai zala Zeliaren gogo bizia! “Ni seme-alaba asko izateko jaio naz. Umeak zorotzeraino maite ditut”, idatziko dau eskutitz baten. Pozaren pozez izango dira onartuak seme-alabak. Hamahiru urte bitartean, bederatzi seme-alaba izango ditue. Eurotatik, lau txikitan hilko jakez. Bi neskatxo eta bi mutiltxo. Orduko umeen heriotza-tasa goitik ebilen. Beste bostak, Teresatxo izan ezik, urte asko biziko dira. Mariak 80 urte hartuko ditu, Paulinak eta Zelinak 90 eta Leoniak 78 urte. Euron

hezkuntza izango da ardurarik nagusiena. Le Manseraino bialduko ditue bi alaba nagusiak ikasketak egiteko.

Bikote honen helmuga eta grina eta era Jaungoikoa izango da. Eurontzat ezkontza santu izateko bide sakratua baino ez da izango. “Ze tristesia dan Jaungoiko bako familia” esango dau Zeliak. Egunero, goizeko 5:30ean, meza santuan hartuko dabe parte. Domeketan seme-alabekin meza nagusian eta arratsaldean bezperetan izango dira. Abadeak baimena emoten eutsoen guztietan, Gure Jauna hartzeko beti prest egongo dira. Luisek ez dau domeketan eta jai egunetan bere bitxitegi-erlojutegia zabalduko, nahiz eta horrek diru irabaztea murriztu.

Gure Jaunaren gurtzaile dogu Luis. Zelia, ostera, frantziskotar hirugarren ordenakoa. Bai batak eta bai besteak ez dabe batzarretara hutsik egingo. Urtero hartuko dabe parte parrokiako gogo-jardunetan. Horrez gainera, urtero egingo ditu Luisek gogo-jardunak trapako monasterio baten. Maite ditue erromesaldiak. Batez be Luisek, ez hainbeste Zeliak. Chartresen eta Lourdesen be izango dira. Ama Birjinarenganako aparteko zaltetasuna dabe biok. Esaterako, seme-alaba guztiei Maria izen ederra ipiniko deutsee lehenengo. Eta beti eroango dabe Karmengo Amaren Kutuna. Ez dira falta etxean liburu erlijiosoak irakurtzeko. Santuen bizitza, Guerenguerren Urte liturgikoa, Kristoren bidea eta abar. Munduko eta Elizako gorabeherak jarraitzeko, “La Croix” egunkariaren harpidedun be badira.

## 2.2 Lanbide eta sozial jarduera

Luis eta Zelia Pont Neuf kalean biziko dira. Eurokin batera Luisen gurasoak. Berton dauka Luisek bere bitxitegi-erlojutegia eta berton jaioko dira, Teresatxo izan ezik, gainerako seme-alabak. Baina 1871. urtean, Luisek loba bati saltzen deutso bitxitegi-erlojutegia, 20 urte lehenago berari kosta jakon prezio berberean eta hamar urte barru ordaintzeko kontratua eginez. Hor be ikusten da gizon honen bihotz zabala. Ez eban nahi bere lobeia betirako zorpean iztea.

San Blas kalean Zeliaren ehundegia egoanez, bertara doaz bizitzera. Ordutik aurrera buru-belarri arduratuko da Luis bere emaztearen puntuzko ehunak komertzializatzen. Salerosketak gauzatu, betiko bezeroak zaindu, barriak aurkitu, soldatak ordaindu eta abar... Jurnalak sasoiz ordaintzen fama ona dau. Atsegin jakoz Tobiasen testamentuko berbak: “Ez atzeratu biharamunera arte langileari saria ordaintzea” (Tb 4, 14)

Sozial ekintzetan be ez dira atzera geratzen. Gaixoei eta txiroei laguntzeko, San Bizente Paulekoaren batzarkide egingo dira. Nahiz eta baten baino gehiagotan “on eginaren paga, ate ondoan palua” esperimentatu. “Ez dau sarritan esker onik ekarten, lagun hurkoari laguntzeak”, izango da Zeliaren kexa. Euron alabak solas-biltoki egoki bat izan dagien, “Zirkulu Katolikoa” deritzon alkarteko batzarkide be badira. Misiolari laguntzeko sortzen dan erakundean be partaide egingo dira. Urtean zehar, misioetarako makina bat diru-laguntza emon be bai.

Ez ziran izan urte errazak. Frantziaren porrota Prusiaren aurkako gerran (1870-1871) benetan penagarria. Ez dira txikia-goak Frantzian bertan jasotako sarraskiak. Traumatikoa Parisko Apezpikuaren eta 65 abadeen hilketen eguna be. Geroago eta gogorrago jarduten dau gobernuak Eliza erasotzen. Garibaldiren tropak indarrez Erroma hartu eben eguna be, Aita Santua atxilotuz, oso mingarria.

### **2.3 Zeliaren heriotza (1877)**

Elizakoak hartuta, 1877ko abuztuaren 28an, bularreko min-biziak jota hilko da Zelia. Gaixoaldian be erakutsiko dau bere adorea eta umore ona, bere baikortasuna eta fedea. Bere senarrak bultzatuta, gogo handi barik, bere hiru alaba nagusienekin, joango da Lourdesera. Nahiz eta ibilaldi neketsuegia izan, ez dau bere umore ona galduko. “Osatu ez arren, horregaitik ez deutsat kantatzeari lagako” idatziko deutso senarrari.



*Lisieux, santa Teresatxoren basilikaren aurrealdea.*

Amaren burukomina Leonia izango da. Alaba txiki biak, Zelina eta Teresatxok, hain bizkorak diranez, ez deustoe hainbeste larritzen bihotza. Konfiantza osoa agertzen dau bi alaba nagusiengan. Badaki etxea aurrera eroateko gauza badirala. Bere alaba kutunena Paulina dau. Egun baten, beronen eskuei oratu eta mosu emonez, dinotso: “Ez dot merezi zu bezelako alaba bat izatea”. Abuztuaren 26an hartuko ditu elizakoak eta 28an, gauerdian, emongo dau bere azken arnasa. 46 urte baino ez ditu. Luis bere senarra, Isidoro bere nebea eta honen emaztea azkeneraino oheburuan izango ditu lagun.

Hiletak abuztuaren 29an, goizeko 9etan, ospatuko dira Notre Dame parrokian. Herriko kanposantuan lurra emongo jako. Eta hortxe egongo da Zeliaren gorpua Luis bere senarra hil arte.



### 3.1 Luisen alarguntza (1877 - 1 894)

Hemeretzi urte ezkontuta bizi ondoren, 54 urterekin geratzen da Luis alargun. Alaba zaharrenak 17 urte besterik ez ditu, Paulinak 16, Leoniak 14, Zelinak 8 eta Teresatxok 4 urte. Lisieuxen bizi dan koinatuari eta bere bi alaba nagusiei kontsultatuz, Luisek erabagi garrantzitsua hartzen dau. Familia osoa Lisieuxera bizitzera aldatzeari komenigarri deritxo. Bi arrazoi ditu buruan. Bata, alabak gazteegiak diralako. Eta bere koinataren laguntza ondo baino hobeto etorriko jakelakoan. Eta beste arrazoi bat be badau gogoan. Hau da, bere hiru alaba txikienak eskolatzea. Ez dau nahi bi alaba nagusiak lez, txikienak barne-ikasle Le Mansera bialtzea. Gainera bertan bere koinata lekaikea be hilabete batzuk lehenago hil jakon. Eta jakinean dago, Lisieuxen badala izen handiko beneditar lekaikeen ikastetxe egoki bat bere alaba txikienak eskolatzeko.

Nahiz eta bere ama eta lagunak eta ezagunak Alençonen laga behar, bere alaben onerako, Lisieuxera doa bizitzera. Alençongo arazoak konpondu eta “Buissonnets” deritxon txalet bat hartuko dau errentan. Bere alaba zaharrena jarriko dau “etxeke andre”. Ondoren Leonia eta Zelina beneditar lekaikeen ikastetxean matrikulatuko ditu. Eta etxean bertan, Teresa-txoren andereño Paulina izendatuko dau.

Etxea martxan ipiniz, Luisek herriaren aurrean patriarka bat dirudi. Alençonen lez, goizero joango da mezara eta arratsaldean bere alaba txikienaz ibilialdia egingo dau. Askotan inguruko erreketan arrantzan emongo dau denporea. Baina ez da itzuliko etxera, elizaren baten sartu barik, Sagraioaren aurrean belaunikatuta otoitz egin barik. Etxean beti dauka zer edo zer egiteko. Lorategia zaindu, bedarra ebagi, leihoak konpondu eta abar. Ez dau egunik igaroko liburuak eta “La Croix” irakurri barik. Atsegin jako bere alabekin iluntzean alkartuta otoitza familiar egitea be. Hutsik egin barik bere alabekin San Pedro Katedralean domekero entzungo dau meza nagusia.

Alençonongo antzera, Gure Jaunaren gurtzaile jarraituko dau. Baita Lisieuxko San Bizente Paulekoaren eta “Zirkulu Katolikoaren” batzarkide be egingo da. Misiolariei laguntzeko beti prest. Haren eskuzabaltasunak ez dauka neurrik. Esaterako, berak ordainduko ditu hamar mila libera Katedraleko aldare nagusi barria egiteko. Etxera hurreratzen diran pobreak ez dira aldenduko eskupekoa hartu barik.

Erromesaldiak gogoko ditu. Parisera eta Alençonera sarritan doa. Bere ametsa Jesusen lurraldetara joatea izango da. Ez eban lortu. Batzuetan arrazoi politikoakaitik eta bitan, behintzat, bere alabak eragozpenak jarri eutsoezalako. Behin lortuko dau bere parrokiako erretoreaz Konstantinoplaraino heltzea. Bere bi alaba txikienekin, Erromaraino be helduko da, Leon XIII.a Aita Santuaren abadetzako urrezko ezteguak ospatzeko erromesaldian parte harturik.

Bere alabak, apurka-apurka, badoaz lekaime izatera. Paulina 1882. urtean sartzen da Karmengo Ordenan. Handik bi urtera alaba zaharrena. Leoniak be egingo dau sartu-urten bat Alençonongo klaratarren komentuan eta bi bider Caengo Bisitaziñoko monasterioan. Eta 1888. urtean, bere alaba txikiena eta kutunena be badoa karmeldar lekaime. Teresatxok ez ditu hamabost urte baino. Urte berean, ekainean, Zelinak be agertzen deutso aitari lekaime izateko asmoa. Nahiz eta sinismen handiko gizona izan, Luisen bihotzak zartada galantak hartuko ditu. Baleiteke alaben erabakiak aitaren osasunean be ondorioak izatea...

### **3.2 Luisen heriotza (1894)**

Luisen osasuna txarrerantz doa. 1887ko maiatzaren batean, paraliakiak jotzen dau lehenengoz eta erdi elbarriturik geldituko da. Baina nahiko bizkortzen da. Teresatxo komentuan sartu zan urtearen amaieran, barriro be larri gaixotzen da. Gauzea da buruko arterioskleriaren ondorioak ageri dirala. Haluzinazio-krisiak be baditu.

Behin Frantziako gobernuaren Elizaren kontrako lege gogorak zirala eta... egoera larri horretan, bere buruari bueltak emoten ziharduan gau eta egun. Bere alaba lekaimen eta abadeen etorkizunaz nahastuta dabil. Abadeentzako gordeleku berezi bat egingo dau bere etxean. Holako buru nahasketa krisi gogor baten, errebolber bat hartzen dau eskuetan alaba lekaimeak eta abadeak babesteko asmotan...

Beste baten, inori ezer esan barik, etxetik ihes egiten dau. Eta Havreko portuan aurkituko dabe. Bere asmoa Kanadara hanka egitea izango da, bertan bere adiskide handia, Aita Pichon jesulaguna bizi danez, honen babespean eremutar izateko gogoaz edo... Horrela, Zelinak lekaima karmeldar izateko bidea libre izango daualako ustez. Ez dau gura Zelinaren bokazioaren oztopo bera izaterik. Etxeratu ondoren, alabak galdetzen deutsoenean ihes egitearen motiboa, hauxe izango da erantzuna: “Ez daukot beste asmorik, Jaungoikoa serbitzea baino”. Buru-nahasketetan be, Luisek beti dauka gogoan besteen onura. Subkontzientetik be beste on egitea berez urtetan eutson Luis jaunari.

Nahiz eta argialdiak izan, buruko arteriosklerosiaren eragina nabaritutuz doa. Etxetik ihes egiteko arriskuak hor jarraitzen dau. Bere alabak gogo horreek burutik kentzeko dinotsoenean, erantzuna argi dauka: “Jaungoikoaren adiskidea naz ni eta ez nigaitik arduratu”. Eta azken baten, Isidoro koinatuaren aginduz, Caengo Bon Sauveurko ospitalera daroe. Han igaroko ditu hiru urte. Bertako mojak ikaratuta geratuko dira Luisen sinismenaz. “Benetan harrigarria da gizon hau. Beti dago Jaungoikoa goratzen. Ez da inoiz be kexatzen. Eta bere alabenganak maitasuna itzela”, idatziko dau psikiatrikoko lekaima nagusiak. Bere osasuna hobetzeko, alaba karmeldarrak San Joseri bederatiurrena egiten diharduela idazten deutsoenean, aitaren erantzuna jatorra benetan: “Ez, hori ez; Jaungoikoaren borondatea betetzea baino ez da eskatu behar”...

Oso-osorik perlesiak jota mugitu ezinik geratzen danean eta ihes egiteko arriskua desagerturik, Lisieuxera dakarre barriro



*Santa Teresatxo Lisieuxkoa.*

be. Bai Caenen eta bai Lisieuxen, Leoniaren eta Zelinaren laguntza ez jakoz faltako. Alaba biokin eta koinatu-koinatekin, 1894ko udan, “La Musse” deritxon gazteluan oporretan egoala, uztailaren 29an, hilko da Luis. Heriotza orduan, bere koinata eta alaba Zelina ditu alboan. Alabeak hiru bider errepikatzen deutsonean “Jesus, Maria eta Jose” jakulatoria eder hau, aitak begiak pixka bat zabaldurik, irribarre goxoa eskeiniko deutso bere alaba jagoleari. Esker oneko gizona azkeneraino. Domekea zan, Jaunaren eguna. Goizeko zortzirak eta laurdenetan, 71 urterekin, emongo dau bere azken arnasa.

Berehalaxe, Zelinak idazten deutsoe bere hiru ahizta kalmeldarrei: “Aita zeruan dago”. Egi biribila! Abuztuaren 2an, Lisieuxko katedralean, ospatuko dira bere aldeko hiletak eta segidan herriko kanposantuan lurra emongo. Urte berean, urriaren 11n, eroango ditue bere ondora, bai emaztearen eta bai lau seme-alaba txikitan hildakoen gorpuak. Teresatxoren basilika ederra amaitu ondoren, kanpoko atze aldean, egongo dira senar-emazteon gorpuak. Eta aurtengo maiatzaren 26an, euron gorpuak basilikaren kriptara aldatu ditue, eleiztarren benerazitorako.

#### **4.1 Aldaretara jasoteko pausoak**

Teresa Lisieuxkoaren “Arima baten historia” argitaratu ondoren, berehalaxe sortuko da haren gurasoenganako miresmena. Mundu guztitik hasiko dira santu izendatzeko eskariak. 1946. urtean, Aita Piat frantziskotarrak kaleratuko dau “Histoire d’une famille” liburu sonatua. Hainbat hizkuntzetara itzulia izango da. Itzelezko fama hartuko dabe mundu zabalean Teresatxoren gurasoak.

1957. urtean, Bayeux-Lisieuxko gotzainak emongo ditu lehenengo pausoak Luis aldaretara jasoteko. 27 pertsonak emongo dabe euren testigantza. Urte berean zabalduko dau Zeliaren prozesua Seezeko Gotzainak be. Kasu honetan, 25 pertsonak aitortuko dabe. 1971z geroztik, Luisen eta Zeliaren prozesuak

bateratu egingo ditu Erromak. Eta 1994ko martxoaren 26an, Joan Paulo II.ak senar-emazteon bertuteen heroikotasuna bere eskuz sinatu eta beneragarri deklaratu ditu.

2003ko ekainaren 10ean, Tettamanzi kardinalak, Milango apezpikuak, ontzat emoten dau Luisen eta Zeliaren bitartez Monzan gertatutako miraria. Pietro Schiliro umetxoak biriketako gitxiegitasun hilgarria dau. Umetxoaren gurasoak, Antonio Sangali karmeldarraren aholkuz, Teresatxoren gurasoei bederatzuurrena egiten dihardue. Eta hona hemen, 2002ko ekainaren 29an, umetxoa bat-batean sendatuta geratzen da. 35 egun besterik ez ditu Pietrok. Medikiak ezin dabe inondik inora sendakuntza hau zientifikoki argitu. Eta umetxoa guztiz osatuta, ospitaletik etxera bialduko dabe.

Aurtengo uztailaren 3an, Benedicto XVIak, Pietro umetxoaren sendakuntza miraritzat joko dau. Eta urriaren 19an, Luis eta Zelia, euron alabatxoaren basilikan, dohatsu izendatuak izan dira ospe handiz. Kristau familiak badakie santutasun bidean nori jarraitu!

*A. Olea*